



Elgoibartarra da Eñaut Izagirre eta 25 urte ditu. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

infraganti EÑAUT IZAGIRRE

Izotz puskak aurkitu eta aztertu. Horretan dihardu Eñaut Izagirre geografo eta glaziologoak. Txileko Punta Arenas hirian dagoen Magallanes Unibertsitatean master bat egiten ari da, eta doktoretza tesi bat egiteko proposamena jaso du Patagoniako Hoste uhartera egindako 45 eguneko espedizio batetik itzuli berrian.

Izotza nonahi, muturreko baldintza klimatologikoak eta bakardadea. Eñaut Izagirre (Elgoibar, 1990) geografo eta glaziologoaren jardunbidean oinarri diren hiru elementu dira. Edonor atzera botako luketen hiru elementu izanagatik, nolabaiteko erakarpen indar bat daukate Izagirrerekiko, are baldintza horietan lan egitea pasio bilakatzeraino.

Glaziologoa da bera, baina geografiatik abiatuta egin du glaziarrak aztertzen dituen zientziarako bidea: «Txikitatik ibili izan naiz mendian eta, ondorioz, betidanik interesatu izan zaizkit lurrraren gorabeherak, malkarrak, erliebeak. Interes hori Geografia ikastearekin lotu nuen eta bide horretan geografia fisikoan zentratzea erabaki nuen, alegia, erliebeak nondik datozen eta nola

eratzen diren aztertzea erabaki nuen».

Euskal Herriko Unibertsitatean egin zituen Geografia ikasketak, eta ondoren abiatu zen Txilera, Punta Arenas hiriko Magallanes Unibertsitatera, glaziologiaren inguruko master bat egitera: «Ibilbide horrek guztiak eraman ninduen Patagoniako glaziarrei begira jartzera. Glaziarrak, baina, ezagutzen nituen aurrez ere, Piriñoetakoak batez ere. Unibertsitatean ezagutu nuen Ibai Ricoren eskutik ezagutu nituen, eta berarekin egin nituen lehenengo landa-lanak glaziar batean». Bere jarduna batik bat Patagonian zentratzearen arrazoia logistikoki beste eremu batzuk baino errazagoa delako da –Antartikoa, adibidez–. «Oso gustura ibiltzen naiz bertan. Nahiko ongi ezagutzen dudan eremua da eta oraindik lan pila bat dago egiteko bertan», azaldu du.

IZOTZ PUSKAK AZTERTZEN

Zein da, baina, glaziologo baten egitekoa? Honela azaltzen du Izagirrek: «Kriosferari –izotzari– lotutako lan guztiak barnebiltzen dira glaziologo baten jardunean, nola glaziarrak hala itsas izotza –icebergak– ere. Finean, baina, zientzia puruen arteko ‘zientziatxo’ bat da; Geologia, Klimatologia, Geografia eta Geomorfologia batu eta horren ondorioa da, glaziarretara enfokatura». Dioenez, Ameriketako Estatu Batuetatik datorren izendapea da glaziologoarena, eta nahiz eta ez izan oso jardunbide ezaguna gure artean gaineratu du nazioartean oso erabilia dela.

Garatu nahi duen jarduna ere modu ezberdinetan enfoka dezake glaziologo batek. «Klimari lotuta, aztertu daiteke glaziarrak aurreratzen edo atzeratzen ari diren, alegia, azter daiteke nola ari den aldatzen glaziar baten masabalantzea. Erliebeari dagokionez, glaziar batek inguru horretako erliebean izan duen eragina azter daiteke. Adibidez, Aralarren izan ziren glaziarrak iraganean, eta nahiko erliebe mota esanguratsuak daude egun. Pirinioak ere aipaturikoaren adibide dira; Belaguako harana, adibidez. Haran glaziar bat da, nahiz eta gaur

egun jendeak ez duen pentsatzen hor glaziar bat egon zenik. Giza ikuspuntu batetik, azter daiteke glaziarrek ur-errekurtso bezala daukaten garrantzia, Peru eta Txileko hainbat eremutan gertatzen den bezala», adierazi du Izagirrek.

Glaziarren aurrera edo atzera egiteaz hitz egitean, aldaketa klimatikoaren gaia mahaigaineratu da. Gaiaren inguruko iritzi pertsonala dauka Izagirrek, oinarri zientifiko batekin osatzen duena. Haren hitzetan, eratu eta desagertu egin dira glaziarrak historian zehar: «Gaur egungo egoerari erreparatuta, pairatzen ari garen beroketa klimatikoak desagertze bidean jarri ditu glaziarrak, nahiz eta ez dakigun guztiz desagertuko diren edo ez. Baina desagertzen badira ere, planetak jarraituko du bere bidea egiten, gizakiaren esku hartzearekin edo gabe. Horrek esan nahi du glaziar batzuk desagertuko badira ere beste batzuk eratuko direla etorkizunean, baldintza klimatikoen arabera betiere».

Patagoniako kasu espezifikoan erreparatuta, argi ikusten du Izagirrek bertako glaziarren atzeratze tasa oso-oso handia dela, «azken 50 urteotan batez ere. Hori gertatzen da –jarraitu du– klima berotzen ari delako, eta horrek eragin zuzena dauka glaziarren urtze prozesuan. Glaziar batek bizitzeko behar duena da neguan erortzen den elur kopurua udan ez desagertzea, eta alderantzizkoa ari da gertatzen egun».

45 EGUNEZ EZEZAGUNA ESPLORATZEN

Glaziologo baten jardunaren oinarria, bada, landa-lana da, glaziarrak zapaldu eta hauek aztertzea. Txileko Patagoniatik itzuli berria da Izagirre, Hoste uhartetik hain zuzen ere. 45 egun igaro ditu bertan, ezezaguna zen uharte batean. Bost laguneko espedizio bat izan da: Ibai Rico, Evan Miles eta Izagirre bera esploratzaile moduan eta beste bi lagun oinarritzko kanpaleku izan duten belaontzian. «Hirurok lagunak gara eta bada denbora bat ezagutzen garela. Patagonian zerbait egiteko gogoz ginen, eta hala hasi ginen begiratzeko zertan egin genezakeen ekarpena. Horretan ginela, ezezaguna zen izotz eremu batekin egin ge-



Txileko Magallanes Unibertsitatean master bat egiten ari da Izagirre uneotan, eta doktoretza tesi bat egiteko proposamena jaso berri du. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

nuen topo, eta hara joatea erabaki genuen», azaldu du.

Prestaketa lanetan zenbiltzala, gainera, hainbat beka eskuratu zituzten: Azpeitiko Udalaren Joxe Takolo bekarekin egin ziren, National Geographic-en esploratzailer gazteentzako beka eskuratu zuten eta Londresko Royal Geographical Society entzutetsuaren azken bultzada ere izan zuten. «National Geographic-ek kontratu bat sinatzea eskatu zigun, baita espedizioaren dibulgazio lana euren eskuetan uztea ere. Londresko Royal Geographical Society-rekin daukagun betebeharrak bakarrik erreportaje bat bidaltzea da, espedizio argazki batzuekin, ondoren euren publikazioan ezazten», nabarmendu du. Bekez gain, mikrolaguntza ezberdinak jaso zituzten, eta *crowdfunding* kanpaina bat ere abiatu zuten.

Hasierako plana izotz eremu ezezagun batera joan eta esplorazio lana egitea zuten, bide batez lan zientifikoa eginez: «Horretarako, beti egiten dugun bezala, galdera batzuk planteatu geniz-

kion geure buruari, eta horiek erantzuten ahalegindu gara. Sarri gertatzen da egin dituzun galderen erantzunak esperotako erantzunetatik oso ezberdinak izatea, baina horrek badu positibotik ere, aurrez dauden hipotesi batzuei erantzun bat eman diezaikezulako oinarri zientifikobatekin».

Izagirrek dio gisa honetako espedizioek norberaren konfort eremutik ateratzen laguntzen dutela, baita 45 egunez bost lagunekin soilik egote horrek talde lanari garrantzia berezia ematen laguntzen duela ere: «Norberaren egoak albo batera utzi behar dira eta taldean pentsatu behar da une oro. Berez baldintzak samurrak ez badira, horri 10 eta -

Txileko Patagonian aurkitzen den Hoste uhartetik itzuli berri da Izagirre. Bertara egindako 45 eguneko espedizioak pertsona bezala hazten lagundu diola nabarmendu du

Glaziarren aurrealdean eratzen diren lakuak aztertzeraz bideratua dagoen proiektu berri batean parte hartzeko eskaintza egin diote: «Pentsatzen ari naiz; lagundu, behintzat, egingo dut»

10 graduko tenperaturak gehitu behar zaizkio».

Orain arte egin duen espedizio luzeena izan da iragan martxotik apirilera bitartean egindakoa eta, nahiz eta oraino ez den honen ondorioak aztertzen jarri, pertsona bezala hasteko eta talde lanean nola molda-

tzen den jakiteko balio izan diola aitatu du: «Espedizio-buru antzeko zerbait izatea tokatu zait. Nintzen ingurua hobekien ezagutze zuena eta belantzeko kapitainarekin ere nik egin nuen harre-

mana. Taldea eramatea tokatu zait, beraz, eta horiek esperientziak dira, pertsona bezala hazteko balio dutenak. Horrek guztiak egoera berriak bizitzeko

motibazioa pizten dizu, plan berriak egiteko».

Eta horretara jarri da Izagirre lurra hartu bezain pronto. Txile eta Britainia Handiko ikertzaileek osatzen duten proiektu bat abiatu berri da Txilen bertan, glaziarren aurrealdean eratzen diren lakuak aztertzeari begira: «Kontua da zenbat momentutan arrisku-tsuak suerta daitezkeela laku hauek, izotz puska bat edo harri handiren bat gainera erotzen bazaie batik bat. Lakua apur daiteke eta, ondorioz, uholdeak eragin. Txilen arrisku handia dira mota honetako lakuak, pila bat daudelako». Hori hala, bere masterreko tesian kotutore lanak egin dizkion Gino Casassa glaziologoak proiektuan parte hartzeraz gonbidatu du eta, nahi izanez gero, doktoretza tesi bat egiteko aukera eman dio: «Gaia interesgarria da, gaur eguneko egoera bat aztertzen duelako. Proiektuan sartu edo ez pentsatzen ari naiz; laguntzeko, behintzat, prest nago». •

Aimar Etxeberria Korta